

Ikaslearen liburu inprimatua

Unitate didaktikoak jasotzen dituen ikasmateriala

Jarduera-fitxak

Unitate didaktikoetako jarduerak eskatzen dituzten adierazpenak eta ariketak egiteko euskarria: grafikoak, datu-biltzeak, txantiloiak, taulak, mapa kontzeptualak, inkestak, etab.

Portafolioa

Ikasleak unitate didaktiko bakoitzean egingo dituen fitxak eta lanak jasotzeko tresna

Lan-koadernoak

Ariketa sistematikoen multzoa eskaintzen duen ikasmateriala

EKIGUNEA


EKI proiektuaren webgunea, euskarri digitalak biltzen dituen txokoa:

- Audioak
- Bideoak
- Animazioak
- Irudiak
- Jarduera osagarriak
- Konpetentzia digitala lantzeko fitxak
- Informazio-testuak

Irakaslearen gidaliburua

Diseinu kurrikularren ezaugarriak eta curriculumaren garapeneko hiru zehaztapen-mailak jasotzen dituen liburua

eki ikasgela analogikoa



Ikaslearen liburu digitala

Unitate didaktikoak jasotzen dituen ikasmateriala (zoom eta web bertsioak):

- Audioak
- Bideoak
- Animazioak
- Irudiak
- Informazio-testuak
- Jarduera osagarriak
- Konpetentzia digitala lantzeko fitxak
- Jarduera-fitxak
- Irakaslearen gidaliburua

eki ikasgela digitala



DBH

EUSkara eta literatura

euskal Curriculum
k onpetentzietan oinarrituta
i ntegrazioaren pedagogiaz

Euskara eta Literatura arloko material berrien ezaugarri nagusiak

Euskal Herriko ikastetxe gehienek elkarrekin eraikitako eta onetsitako Euskal Curriculumean oinarritua



www.ikaselkar.com/eki

ikaselkar

EUSkara eta literatura arloa

Oinarritzko kompetentzia: kompetentzia zientifikoa

Ikaslea gai da, bere bizitzako hainbat eremutan, egoera bakoitzak eskatzen duen ahozko zein idatzizko hizkuntzaren erabilera egokia eta eraginkorra egiteko: euskaraz (B2) beste hizkuntza ofizialean (gaztelania edo frantsesa) (B2) eta nazioarteko komunikaziorako hirugarren hizkuntza batean (B1). Era berean, badu kultura literarioa, Euskal Herrikoa nahiz unibertsala, inguratzen duen mundua eta bere burua hobeto ulertzen lagunduko diona.

Arloaren ikuspegia

Hizkuntzaren ikuspegia

(Europako Batzordea, 2005)

Haautatutako ikuspegia, oro har, ekintzan oinarritzen da, gizarte-eragiletzat hartzen baititu hizkuntza bat ikasten diharduten erabiltzaileak eta ikasleak; hau da, egoera jakin batzuetan, ingurune espezifiko eta jarduera-arlo jakin batean, zeregiri jakin batzuk (ez soilik hizkuntzarekin lotuak) bete behar dituzten gizarteko kideak. Hizketa-ekintzak hizkuntzaren jardueretan gauzatzen diren arren, gizarte testuinguru zabalago baten osagai dira, eta testuinguru horrek berak ematen die esanahi osoa. Ikuspegi horrek eduki duena baino marko integralago batean kokatzen du hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza. Hizkuntzaren erabilera, ikaskuntzarena barne, lotuta dago beti pentsamenduarekin eta ekintzarekin. Bizitzako hainbat eremutako egoera bakoitzean, haren ezaugarrien baitako testuen ulermena edo eta ekoizpena eskatzen dituzten hizkuntza-ekintzak gauzatzeko, pertsonak dituen kompetentziak baliatzen ditu, metadiziplinarrak, oro har, eta komunikatibo-linguistikoak, bereziki. Hizkuntzaren erabiltzaileak ekintza horiekiko duen kontrolak bere kompetentzien garapena ekartzen du.

Euskararen ardatzuriko eleaniztasuna

Hizkuntzak eta Literatura arloko oinarritzko kompetentziaren lorpenak, elebarkatasuna edo elebitasuna gaindituz, hezkuntza eleaniztaren bidean sakontzeko beharra dakar.

Eleaniztasuna prozesu dinamikotzat hartzen dugu. Izan ere, hizkuntzak ez dira era osoan eta abstraktuan garatzen pertsona elebidun edo eleaniztunarengan; aitzitik, bizitzako eremuetako egoeretan erabiliz garatzen dira hizkuntzak. Hizkuntza jakin batean garatuko den komunikaziorako kompetentzia, beraz, ez da guztizkoa izango edo betiko emango, baizik eta erabileraren baitan mantendu, garatu edo galdu egingo da.

Euskararen kasuan, normalizazio bidean dagoen hizkuntza minorizatu, ezinbestekoa da, euskara komunikazio- eta ikasketa-hizkuntza nagusitzat hartzea gainera, bereziki erreparatzea haren erabilera eta jabetza bideratuko duten egoera esanguratsuen hautaketari. Helburua da bizitzako eremu guztietako egoera anitzetan euskara modu egoki eta eraginkorren erabiltzeko ikaslea gaitzea eta haren erabilerarako jarrera baikorra indartzea.

Euskaldunen etorkizuna eleanitza denez, beharrezkoa da, euskararen erabilera indartzearekin batera, beste hizkuntzentzat irteera-profilean definitutako lorpen-maila bideratzea. Helburua euskararen ardatzuriko eleaniztasuna garatzea da, hizkuntza horietako bakoitzarentzat era bateko eta besteko eremuetako berariazko egoera esanguratsuak hautatuz.

Hizkuntzen curriculum integratua

Arloko oinarritzko kompetentziak eskatzen duen euskararen ardatzuriko kompetentzia eleaniztuna bideratzeko, ez da nahikoa gizarte-ekintzara bideratutako hizkuntzen ikuspegia hautatzea. Horretarako, eta hizkuntzen elkarrengaitasun-printzipioan oinarrituz, derrigorrezkoa da hizkuntzen arteko konparaketa, kontrastea eta horien arteko etengabeko elkarrekintza kudeatzen duen gaitasun linguistikoro orokor bat garatzea.

Ikuspegi honek hizkuntza-hezkuntzaren helburuan eragiten du: helburua ez da elkarrekin zerikusik ez duten bizpahiru hizkuntza irakastea, jatorrizko hiztunen ereduari jarraituz; aitzitik, helburua oinarritzko hizkuntza-bilduma (errepertorio) bat sortzea da, hizkuntza-gaitasun guztiak jasoko dituen.

Hartara, euskararen ardatzutako eleaniztasun oreakua eta integratua garatzeko, ezinbestekoa da hizkuntzen ikuspegi integratzailea eta horrekin batera doan curriculum bateratua gauzatea. Ikuspegi horrek, euskal testuinguruaren ezaugarri soziolinguistikoa eta hizkuntza bakoitzerako finkatutako lorpen-maila kontuan hartuta, honako hau eskatu du:

- Hizkuntza bakoitzaren erabilera-egoera esanguratsuak definitzea, bizitzako eremu guztietan erlazionatutakoak direla ziurtatuz, baina ez neurri berean; izan ere, egoera bat esanguratsu izatea ingurunean gertatzen diren esperientzia eta praktika errealekiko garrantziaren baitakoa da. Ondorioz, hizkuntza bakoitzaren irakaskuntzarako egoerak hautatzean, bi irizpide hartu dira kontuan: alde batetik, hizkuntza bakoitzaren estatusa eta egoera soziolinguistikoa eta, bestetik, ikaslearen irteera-profilean Oinarritzko Hezkuntzaren amaierarako hizkuntza bakoitzarentzat finkatutako erabiltzaile-maila.
- Bizitzako eremu bakoitzean hizkuntza guztientzat komunak diren erabilera eta egoera esanguratsuak definitzea, eta hizkuntzen artean modu osagarrian banatzea.

- Egoeren ezaugarrien baitan ikasleek gauzatu beharreko ekintza komunikatiboek eskatzen dituzten testu-generoak edo eta diskurtso-sekuentziak definitzea.
- Testu horien ahozko zein idatzizko ulermenerako eta ekoizpenerako ikasleek behar dituzten eduki-baliabideak (kontzeptuak eta prozedurak) definitzea eta hizkuntza ezberdinen artean modu osagarrian banatzea, Hizkuntzak eta Literatura arloko oinarritzko kompetentzian hizkuntza bakoitzarentzat definitutako erabiltzaile-maila kontuan hartuta.

Ondorioz, arloko oinarritzko kompetentzia, arloko kompetentziak eta ikasturte amaierako kompetentziak berberak dira hizkuntza guztientzat. Horiek lortzea hizkuntza guztien artean modu osagarrian bideratzen da.

Arloaren kompetentziak

Arloko oinarritzko kompetentziaren zehaztapena dira. Arloaren ikuspegia kontuan hartuz, oinarritzko kompetentzia metadiziplinarrak eta arloko eduki multzoak integratzen dituzte.

Arloaren kompetentziak	Eduki-multzoekiko erlazioa
1. Ikasleak hainbat bizitza-eremutako testuak (idatzizko, ahozko nahiz ikus-entzunezko testuak) eraginkortasunez ulertzen, baloratzen, jasotzen eta erabiltzen ditu, bai helburu pertsonalei erantzuteko, bai bere ezagutzak garatzeko zein gizartean parte hartzeko.	<ul style="list-style-type: none"> Ahozko komunikazioa Idatzizko komunikazioa
2. Ikasleak bizitzako hainbat eremutan komunikazio-egoeraren ezaugarrien baitan dituen helburuen lorpena bideratzen duten testuak sortzen ditu (idatzizko, ahozko nahiz ikus-entzunezko testuak), bakarka zein elkarlanean, argi, jarioztasunez eta modu eraginkorren, hizkuntzaren bidez ekitea eskatzen duten egoeretan hizkuntza-tresna eragingarri gisa erabiltzeko.	<ul style="list-style-type: none"> Ahozko komunikazioa Idatzizko komunikazioa
3. Ikaslea hizkuntzari buruzko hausnarketaz baliatzen da, hizkuntza-sistemako osagaien arteko hartu-emanez jabetuz, ulermenari eta ekoizpenari dagokionean erabilera hobetzeko eta hizkuntzari buruz hitz egiteko metahizkuntzaren jabe izateko.	<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntzari buruzko hausnarketa
4. Ikasleak inguruko errealitate soziolinguistikoa kritikoki interpretatzen du, hizkuntzen bizitza eta garapena baldintzatzen duten faktoreak eta haien arteko harremanak ezagutzeko, euskararen erabileraren eta normalizazioaren aldeko konpromiso aktiboa garatzeko, beste hizkuntzekiko errespetu- eta balorazio-jarrerekin batera.	<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntzaren dimentsio soziala
5. Ikasleak bere bizitzako eremuetan hizkuntza literarioa erabiltzen du, eta literatur erreferenteak interpretatzen eta balioesten ditu, hizkuntza literarioaren dimentsio estetikoaz jabetuz, literatur-lanen esanahia elkarren artean eraikitzen eta partekatzen. Horrekin, norberaren nortasun soziokulturala eraikitzeko, bizitzako errealitateari buruzko norberaren ikuspegia, ideiak eta sentimenduak sormenez adierazteko eta edertasunaz gozatzeko.	<ul style="list-style-type: none"> Literatura

Metodologiaren oinarriak

Integrazio pedagogiaren ikuspegitik (Roegiers, X., 2003, 2011) interpretatutako kompetentzietan oinarritutako hezkuntzaren arabera, egoerak dira oinarritzko kompetentzia oro eskuratzeko abiapuntua eta ardatza; ondorioz, hala dira baita hitzeko eta literaturazko kompetentzia komunikatiboa eskuratzeko ere.

Horrela, hizkuntzen ikaskuntza-prozesua kudeatzeko eginiko hautu metodologikoak bereziki J.P. Bronckart-en ikuspegi sozio-diskurtsiboa (Bronckart, 1997) eta hortik ondorioztatzen den testu-pedagogian du oinarria. Izan ere, ikuspegi horrek helburu jakin bat lortzeko hizkuntza erabiliz munduan jarduten duen pertsonatzat hartzen du ikaslea. Jardun horren testuinguruan lantzen da hizkuntza, egoera jakin horretan sortutako testuaren ezaugarriei –edukiari zein formari dagozkien– erreparatuz.

Hizkuntza-ekintza horiek ahozko zein idatzizko testuen bidez gauzatzen dira. Testuak, beraz, komunikazio-unitate osoak dira, komunikazio-egoera bakoitzaren ezaugarrietara egokiturik zentzua eta forma hartzen duten hizkuntza-unitateak. Horrenbestez, ikaslea egoera jakin batean helburu bat lortzeko hizkuntzaren bidez ekiten duen pertsonatzat hartzen da.

Kultura guztiek testu-generoak dituzte, modu azkar eta eraginkorren komunikatzeko. Horrela, testu-generoak ezinbesteko tresna bihurtzen dira arloko oinarritzko kompetentzia garatzeko. "Genero" hitzarekin, zentzu zabalean, zera adierazi nahi da: hiztun-komunitate batek onartzen duen komunikatzeko modua. Ondorioz, esanahi hori hizkuntzaren bidezko komunikazioaren eremura mugatuta, honela definitzen da generoa: komunitate bateko hiztunek identifikatutako testu-mota. Genero bakoitzak ezaugarri bereizgarriak ditu, haren deskripzioa eta azterketa ahalbidetzen dutenak. Ikuspegi horrek testutzat zera hartzen du: komunikazio-ekintza diskurtsiboa gauzatzeko erabiltzen den hizkuntza zatia.

Generoaren azterketa testuen didaktikara ekartzeak aukera zabala eskaintzen du, haien osagaiak malgutasunez integratu eta zaitu daitezkeelako: testu osoak; testuen zatiak garatzeko erabiltzen diren sekuentzia diskurtsiboak (narratiboa, deskriptiboa, esplikatiboa, argumentatiboa, dialogatua); eta, azkenik, sekuentzia horiek garatzeko erabiltzen diren hizkuntza-elementuak lantzea. Betiere hizkuntzaren ikuspegi testuinguratua mantenduz. Era horretan, unitate didaktiko bakoitzaren irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua honetan ardatzen da: kompetentziarekin erlazionatutako egoera-familia eskatzen dituen komunikazio-ekintza diskurtsiboa gauzatzeko, ikasleak bereganatuta izan behar dituen testu-generoetan edota sekuentzia diskurtsiboetan.